

b.e.r.r.i.a.k

z.i.r.i

J.J. GONZALEZ TXABARRI
EAJko diputatua



«PPrentzat zama bat da GAL aurrekoa, zeinak Mayor Oreja Gobernaren ordezkari zenean jardun zuen»

DEIA

RAFAEL VILLASECA

IESEko Kideen Elkarte



«Lan merkatuan dagoen zurruntasuna txarra da enpresentzat, baina askoz ere txarragoa da langileentzat»

LA VANGUARDIA

JAVIER BARDEM

Aktore espainiarra



«Gustukoagoa naiz gizonekoentzat, emakumezkoentzat baino, ez dakit zergatik... Orain gero eta gutxiago, baina hasieran egunean dozena bat proposizio jasoko nituen gizasemeengandik»

DIARIO DE NAVARRA

JUAN ECHANOVE

Aktore espainiarra



«Nire egoera naturala lodi egotea da. Ez zait ardura kilok galtzea rol zehatz baterako, baina gero atsegin handiz hartzen ditut berririo»

EL CORREO

Tren geltokirako bidea zabalik

Orain dela egun batzuk Iruñeko Udalaren euskaldunokiko zabarkeria salatu nuen, tren geltokia trafiko seinalea dela eta. Orain, zabarkeria lekuz aldatu beharrean nago.

Iruñeko Udalarai egindako eskaera Iruñeko Udalak kontutan hartu du. Ez du seinalea aldatu, baina bai artesauzko margo-lana eginez tren geltokia jarri.

Galdera hauxe zabalitzen zaigu: Agintari erdaldunek hanka sartu eta gero, zenbat aldiz ez dira holako akatsak konpondu zuzenean Erakundeari salatu ez diogulako, hau da, euskaldunon gure zabarkeriagatik.

Ez diot txikikerietan sartu behar dugunik, ezta Euskaltzaindik eztabaiden gisakoetan.

Baina akatsak nabarmenak direnean (batez ere ohiko akats tipografikoetan), hitza hartu behar dugu. Guk euskaldunok salatzen ez badugu, gure agintari erdaldunak beren ezjakintasunean oharituko ez direlako.

Zabarkeriak zabarkeria, ez dadila gure aldetikoa izan.

• **Mikel Aingeru Auza Makuso**
Iruñea

Itoitz-Goardia Zibilaren binomioa

Aurreko asteartean, hilaren 24an: Itoitzetikoko elkartasuna taldeko lau kide urtegiaren obreetako kabletara igo ginen, lanak geldiarazteko eta urtegi hau ilegaltzat jotzen duen Auzitegi Nazionalak eman berri duen epaia gauzatzeko asmoz. Aipatu epai horiez geroztik, lanaren erritimoa inoiz baino bizkorragoa da, gau eta egun batera gelditu gabe aritzen direlarik. Honek zaildu eta gutzit arrakatsua egin zuen kabletarako gure sarrera, bagonetako joan-etorria ez bait zen eten denboratxo bat pasa arte. Goian geunden bitartean, Goardia Zibileko kide batzu birratan azaldu ziren, jeisteko aginduak emanaz. Momentu batean eta labana batez balaiturik, gutako baten hamakaren sokak mozten saiatu ziren. Hori ekiditzearen, bere segurua kendu eta horrela bakar-bakarrik hamakatik zintzilika gelditu zen. Bederatzi ordu pasa ondoren eta haizete izugarria ez zela baretzen ikusita, ekintza bukatutzat ematea erabaki genuen. Goardia Zibilaren

OHARRA: Irizti ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 20 lerro baino luzeago idatzia gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANen zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea.

patrol batzu gure zai zeuden eta Agoizko kuartelera eraman gintuzten. Bertan, ez geundela atxilotuta bainan identifikatu behar gintuztela esan ziguten. Lau lagunetatik hiruk dokumentaziorik ez genuenez, Iruñeko komandantziara eraman gintuzten, *Corcuera legea* ezarri. Eta huraxe sorpresa! Tramiteak erraztearen aitzakiaz, atxilotu eta berehala askatuko gintuztela esan ziguten. Hori dela eta, benetako atxilotetarik gabe fitxatu gintuzten (argazkiak, hatz markak,... eta gutzi). Salatu nahi dugu Goardia Zibilaren iharduera gutzit ilegal hau, hainbat abokaturen ustetan gero eta hedatuagoa, atxilotu izan ez den jendearen artxibategia haunditzea. Eskutitz honen bidez dei egiten dugu jendearen kontrol obesiboa bultzatzen duen Goardia Zibilaren iharduera hau salatu dadin, establo espainolararen gaur egungo lehendakaria den GAL-into jaunaren kumeek ezarritako poterearen gehiegikerien islada baita.

• **Martin Urbikain**

(Itoitzetikoko elkartasuna taldeko 4 zintzilikatuen izenean)

Imajina ezazu San Francisco

Imajina dezake inork Aldaiak bere burua izkutatzeko maniobra izan dela bahiketarena? Imajina dezake besteon diruz bere patrika handitzeko joko izan dela? Imajina dezake inork Jauregi, haix trafikatzeko sare baten buru delako Tanjerrera joan izana, bere morroien zintzotasuna diru publikoaz erostera? Eta Felipe Gonzalez PPKoa dela eta izan dela, eta horrexez GALEN X eta PSOEren hondatzaile? Imajina dezake inork Ceutan matxinatutako beltzak ertzaintzakoak direla. Atutzak nik ez dakit zer trasferentziaren truke gobernu zentralaren zerbitzuan jarrita. Marokoren artean behingoz harrisi bat erakitzearen justifikazioa lortzeko? Ba bai, antza, zoritxarrez.

Guzti hau sinistutsu lukete San Francisco auzoko batzuk Mikel Gonzalez Sola jaunak esango balu. Baita sutsuki arbulatu ere kailean zenbait komertziantek horretarako berotu ezkerro, gehiago aztertu gabe. Eta gezu-

rrak esan eta esan, azkenean egia bihurtuko lukete. Imajina dezake inork San Francisko auzo elkarte historikoak eta errehabilitazioaren aldeko beste talde sozialak miseria eta marginazioaren bultzatzaile direla, bertatik subentziotan milioiak eta milioiak irabazten dituztelako?

Gezurra izan arren, inolako frogarik ez dagoen arren, batzuk sinistu egiten dute, eta prentisak ahotsa ematen die.

• **Arturo Izarzelai Izagirre**
Bilbo

UNEDen itxiera

Kezka handiz jakin du Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) UNEDeko Euskal Kultura Departamentua itxeko erabakia hartu duela unibertsitate horretako ardura gorena dutenek, Kutxak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bergarako Udalak alegia. Euskalgintzaren ikuspegiatik eta euskarazko kulturgintzarenetik erabat negatiboa izan daiteke erabaki hori, eta horregatik zuzendu zaie EKB erakunde horiei, erabaki hori bertan behera utzi dezaten eskatuz.

Ez da ahaztu behar 1977tik gaurdaino milaka eta milaka izan direla UNEDeko Euskal Kultura Departamentuaren eskolak hartu dituzten ikasleak eta bete duen formazio eta prestakuntza iraunkorreko hutsunea ezin garrantzitsua izan dela. Euskal Kultura Departamentua itxeko erabaki den argumentuari erantzunez, adierazi nahi dugu bere funtzioa ezin dutela euskaltegiek eta beste unibertsitateek bete. Gaia pixka bat ezagutzen duenak badaki euskaltegia gutzit beste maila batekoa dela, eta Departamentu horrek izan duen eta aurrerantzean ere izan behar duen funtzioa haiek bete ezinezkoa dela. Beste unibertsitateei dagokienez, uste dugu konparazekin direla gaitz zein parte hartze Euskal Kultura Departamentuak antolatutako mintegiak.

• **Paulo Agirrebaltzategi**
(EKBko lehendakaria)
Donostia

seiko urrea

Aingeru Epaltza



Kaka in zon

abases EAkideak nafar Hirukoaren haize berriak agerian utzi behar zirela eta, talaka ederra emanen zion gobernuburuari bidai lehenbalehen egin behar zuela eta. Tuterako kaxaxuria, berri, luzamendutan, UPNkoek eta, bereziki, mende osoan Erresuma Zaharreko politika diktatu duen *Diario de Navarra*-k larrutuko ote zuten beldur. Batzuen eta bertzeen joan-etorriak, deiak eta kontradeiak, faxak

eta arrafaxak gailurra gertakariak galdatzen zuen protokolo eta arrandi gutzitarien egin beharrez. Eta Gasteiza abiatu azkenean gure presidentea, ongi etorria bere mailaren, pisuaren eta garrantziaren ariora eginen zitzaioela berme gutziak hartu ondok. Une historikoa zen: Aliren kalakaz harata. Hegoalde barreiatu honek bat egin ez baina bai bederen elkarrengandik hurbilago egoten hasteko lehen urrats serioa, zinezkoa, benetakoa. Ajuriaenaren oro irriño eta esku-tinka, eta egunaren heinek jakinmina prentsa-areto mukurru bete. Agertu dira, hondarreko; bi protagonistak —bi lehendakariak, bi igualak—, eta azalpenetan hasi topaketa uste baino luzeagoaz. Joxantonio, etxean-eta, solasturi; Javerico, berri, auzoan-eta, ele-zuhur (edo xuhur?), baina, funtsean, dena xamur eta laino. Girosaren goxoak —edo erran beharrekoaren urriak— hartaratua hasiko zen, noski, gure tuterarra, beraren eta bere alderdiaren aruzgi euskaltzale orainsu arte kasik ezagunaren laudorioa egiten. Kazetari traidore horrek —KASen satorra ote?— hauts bilakatu zuen unearen lilura (eta, bidenabarrean, topaketari ateratzen ahal

zitzaien etekin propagandistiko gehiena), nafarren lehendakari gutzit ahaltsuak ententzen ez zuen hizkuntza batean mintzatuz. Axola gutti galdera berari ez bazik eta ma-halkideari egin bazitzaien, axola gutti hizkuntza hori ofiziala bada, hala bere aginduko herrian nola, are gehiago, bere anfitriorenaren. Kanpoan jokatzeko duenean Osasunaren zaletu gero eta bakana-goe berezko omen duen bezala, navarri-covalientea jalgi zitzaion barne-munitetik. Gerokoaren berri badaki EGUNKARIAREN irakurleak.

Laburbilduz, hara jon ta kaka in zon. Erran zaharra ederki bete zuen, alajaina. Otano gure lehendakari bardeneroak Nafarroatik kanpora egin duen lehenbiziko ateraldi ofizialean.

Aferak ez bide du sendabiderik. Jaintxoak eta Foruak bedeinkaturiko lurralde honetako bulego eta despaxtoetan egunez egun ari zaigu hazten lerro dentsitate metro karrutuko (horra Feliz gure fiskalburua. A zer estilista gaidu duen 2 duroko literatura pornoak) eta orain, norik eta presidentak utzi gaitu lotsagarri. Toki, progresoa.

Latza da, latza denez, nafari izatea.